



UDAL BATZORDEEN BERRI


| LAN-TALDEA | AZTERGAIAK | GARATUTAKOA | HURRENGORAKO |
|--|---------------------|--|---|
| Ekimen sozio-kulturalak (2017/06/02) Hurrengo saioa: 2017/06/16 | Itsasora Irteera | Bidaiaren balorazioa egin da | Bidaiako gastuak zerrendatu |
| | Elizako erretaula | Eliz juntaren eta udalaren bileraren ostean, errestauratzaileekin (Equipo 7), funmigadorekin (enpresaren izena) eta andamioen enpresarekin (enpresaren izena) denak batera elkartzekotan geratu gara lanei modu koordinatuan hasiera emateko. | Ahal bada asteazken arratsaldean. Maite arduratuko da. |
| | Udaleku artistikoak | Ekainaren 26tik uztailaren 7ra izango dira, astelehenetik ostiralera,(lurraldebusen erantzunan zai gaude) tartean ordu erdiko atseden ordua izango dutelarik. Monitoreak Maite Salutregi, Jone Uriain, Aizpea Lasa eta Jennifer Willis izango dira. Maite-Jone: Zeramika, eskulanak.... Aizpea: Dekorazioaren diseinua, bideogintza eta bideo diseinua,koreografia ,dantza... Jennifer: Musika, ingelesa... Udalekuaren helburua, gazte bakoitzak gustukoena duen disziplinan pertsonai bat sortuz antzezlan bateratu bat sortzea da. Ume bakoitzarean inskripzioa 20€ takoa izango da eta anai-arreben kopuruaren arabera, 35€ (2 badira) eta 40€ (3 badira). Proposamena azaldu eta ekarpenak jasotzeko gurasoekin ekainaren 9an arratsaldeko 19tan bilera egitea adostu da. | Proiektua paperean aurkeztekotan geratu dira, baita presupuestoa egiteko ere. Diputazioko diru-laguntzak aztertu. Komunikazio taldekoei deialdia egin dezaten luzatu. |



| | | | |
|--------------------------------|-----------------------------|---|--|
| Ekimen sozio-kulturalak | Auzolana | Kizkitzan gelditzen diren lanak amaitzeko ekainaren 17a izatea adostu da. Gelditzen dena: fregadera jarri, komuneko bonbaren jarria konpontzen saiatu, eskailera mailak jarri, pintaketa lanak, entzimerak bukatu... | Behin auzolan honekin amaitutakoan gastuak zerrendatu. |
| | Ekaineko gazteen kontzertua | Gazteen musika irakaslea den Arantxa kontzerturako data lotzen ari da, itxuraz ekainaren 21a litzatekeena. Zehazteko. | Hainbat ikasleek egun horretan ibilaldia dutenez, ordutegia 7.30etatik atzera izatea eskatuko zaio arduradunari. |
| | Korrika | Ekainaren 5ean arratsaldeko 20:00tan Maddi Korrikako bailarako koordinatzailearekin balorazio bat egiteko bilera zehaztu da | |
| | Ukendu eta xaboi tailerra | Tailerrak ekainaren 26an arratsaldeko 19:00 hasiko dira, prestaketa lanekin, segidan ukenduak eta xaboiak. | Komunikazio taldekoei deialdia egin dezaten luzatu. |
| | San Juan bezpera | Sorgin dantzaren entsaioa ekainaren 16an 20:00etan izango da. Dantzarako behar direlako eta jakin-mina daukagulako Mendeungo Patxiri erratzak egiten irakats diezagun eskatzea pentsatu da (isatsak lortu). | Komunikazio taldekoei deialdia egin dezaten luzatu. |



| LAN-TALDEA | AZTERGAIAK | GARATUTAKOA | HURRENGORAKO |
|---|--------------------------|--|--|
| Azpiegitura eta ingurumena (2017/06/10) Hurrengo saioa: 2017/07/01 | Alegiako ranpa | Alegiko Elkarteko sarrerako ranpa Narraspek egingo du, uztailaren hasieran. | Zoruan jarriko diren losak eta bazterreko barandilla mota aukeratu behar dira |
| | Alegiako jolas parkea | -Alegiko jolas parkerako bi enpresei eskatuko zaie bertara etorri eta proposamen bat egiteko. Dagoen espaziorako, umeen parkea eta adinduak ariketa egiteko aparatoren bat jarriz, ze aukera daukaten, eta zer aurrekontu. | Aurrekontuak baloratuko dira |
| | Alegiako komun eta dutxa | Elkarteko paretaren kontra planteatzen diren komun eta dutxa publikoak, biak izan behar dute irisgarriak. Barruan 1,80ko diametroa libre egon behar da, edonoren mugikortasuna bermatzeko. | Aparejadorea begiratzekotan geratu da. Dutzarako ur beroa izateko, aukerarik hoberena ikusten da elkarteko ur berotik konektatzea, eta kontagailu bat jarri, kontsumitzen dena neurtu eta kontuak egiteko. |
| | Udaletxeko radiadoreak | Itsasoko udaletxeko aretoetan tokia optimizatzeko, bi radiadore tokiz aldatu eta leiho azpian jarriko dira. | Narrasperi eskatuko zaio |
| | Baserri bideak | Baserri bideen konponketarako 29.000 euroko dirulaguntza jasoko da Aldunditik. Eskaeran sartu ziren Ariolako bide zati bat hormigoitzea eta Eztalagoitiko luizian eskoilera egitea. | Aurrekontuak eskatuko dira. |



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

| LAN-TALDEA | AZTERGAIAK | GARATUTAKOA | HURRENGORAKO |
|--|---------------------------|---|---|
| Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/06/06) | Udaleku artistikoak | Herriko tableroetan jartzeko kartela diseinatu zen eta egun berean jarri ziren. | |
| | San Juan Bezpera | Herriko tableroetan jartzeko kartela diseinatu zen. | |
| | Ukendu eta xaboi tailerra | | Kartela gauzatzeko geratu da hurrengo bileran |
| Hurrengo saioa: 2017/06/20 | | | |